



## **2020 HAUTESKUNDEAK**

### **GFF-FGF HAUTESKUNDE BATZORDEA**

#### **12 zkduen AKTA**

#### **ETORRIAK:**

Lorenzo González Sarmiento Jn. Hauteskunde Batzordeko presidente gisa  
Iñaki Irigoien Larrañaga Jn. Hauteskunde Batzordeko idazkari gisa.  
Kepa Sanz Vicente Jn. Hauteskunde Batzordeko bokal gisal.

2020ko Azaroaren 2n telematikoki elkartu ondoren, Hauteskunde Batzordeak honako akordioak hartu ditu aho batez.

2020ko Azaroaren 2an **DENON JOKO ZELAIA HAUTAGAITZAK EGINDAKO GALDERA AZTERTU DA NON, GFF-FGFko ESTATUAK KONTUTAN IZANDA, HAUTESKUNDE ARAUDIKO 16.2 ARTIKULUAREN INTERPRETAZIOARI BURUZ GALDETZEN DEN. BERTAN, HAUTAGAITZETAN ORDEZKOAK AURKEZTEKO AUKERA ETA HAUTAN JOAN BEHAR DIREN KIDE KOPURUA AZTERTZEN DIRA.**

Horrela, Hauteskunde Araudiko 16-h artikulua dioenaren arabera, galdera honi erantzuna ematen zaio.

#### **LEHENEGOA: GFF-FGFko ESTATUTUEN 16.2 ARTIKULUA**

Aipatutako artikulua honek honako hau esaten du: GFF-FGF ko edozein ataleko kide izateko, eta, beraz, direktiba batzordeko kide izateko baita, **derrigorrezkoa izango da auzotasun administratiboa Gipuzkoan edukitzea.** Dena den, **ez ohizko kasuetan, Batzar Orokorak betebeharraren salbuespena emateko aukera izango du.**

Argi dago, idazlan hau, Federazio honetako kide diren Nafarroako Foru Erkideko taldeekiko eta baita kirol bizitza Gipuzkoan egiten duten eta beste Herrialdeetan bizi diren pertsonetikiko diskriminatzailea dela.

Hauteskunde Batzorde honek ezin du “egitez” artikulua hau indargabetu, baina, eta Hauteskunde Araudiko 16-e artikulua arabera, legediaren hutsuneak interpretatu eta betetzeko aukera du, araudi hau Federazioaren benetako izaerara egokitu arte behintzat.

Horrela, eta, GFF-FGF ko Estatutueta 16.2 artikulua Batzar Orokorrari Federazioko organoren baten kide den norbaiti Gipuzkoako auzotasunaren salbuespena emateko aukera ematen dionez, **Hauteskunde Batzordeak, Gipuzkoako auzotasuna ez duten hautagaien izendapena aurkezteko aukera emango du, baina, hauen onarpena, Batzar Orokorra eman beharko duen beharrezko salbuespenaren menpe geratuko da.**

Salbuespenaren uneri buruz, eta, posible denean behintzat, Presidente eta Direktiba Batzordea hautatuko diren Batzar Orokorreko gai zerrendan, bigarren puntu bat ezarriko da, non hautagaitz hori aukeratua izaten den kasuan, salbuespen hori eskatuko litzatekeen.

Presidentea hautatzeko egingo den Batzarrean salbuespena eskatzea posible ez denen, salbuespen eskaera hau, ospatu ahal izango den lehen Batzar Orokorrean egingo litzateke.

### **BIGARRENA: HAUTAGAITZETAN ORDEZKOAK AURKEZTEKO AUKERA**

Aukera hau ezeztatzen duen araudirik ez dagoenez, Hauteskunde Batzordeak, aurkezten diren hautagaitzetan ordezkioak aurkeztea onartuko du. Hauek, titularrek dituzten betebeharrak guztiak bete beharko dituzte, hautagaiak aurkatuak izan edo eta aurreko kasuan bezala, Batzarrean salbuespena lortzen ez denean gertatuko diren kasuak ekiditekotan.

### **HIRUGARRENA: GFF-FGF ko ESTATUTUEN 38.6 ARTIKULUAREN ARABERA HAUTAGAITZETAN AURKEZTU BEHAR DIRE KIDE KOPURUA.**

GFF-FGF ko Estatutuen 38.1 artikulua honako hau adierazten du: Direktiba Batzordeak *kide kopuru bakoitia izan beharko du.*

GFF-FGF ko Estatutuen 38.6 artikulua honako hau adierazten du: *Areto Futbol 5 eko Lurralde Batzordeko presidentea edo ofizialki, honek izendatutako pertsona, Batzorde Direktibako kide izango da.*

Izan ere, estatutuen arabera, GFF-FGF ko Direktiba Batzordeko kide **BEREZKOA da. Beraz, eta 38.1 artikuluen arabera Direktiba Batzordeko kide kopurua bakoitia izan beharko denez, hautagaitzek, erroldak betetzeko orduan kontutan izan beharko duten puntua da.**

Horrela, hautagaitzen erroldak aurkezten direnean ARETO FUTBOL BATZORDEKO PRESIDENTEA barne egotea gomendatzen da. Hau egiteko, hautagaia izendatzeko prestatuak dauden tokietako batean idaztea aski izango da. Ez da datu gehiago beharko, ez izendapena eta ezta bere onarpena ere.

**HAUTESKUNDE BATZORDEA**

Izpta: Iñaki Irigoien

A simple, stylized handwritten signature in black ink, consisting of a vertical line with a small hook at the bottom.

Izpta: Lorenzo González

A complex, cursive handwritten signature in black ink, featuring multiple overlapping loops and a long horizontal stroke at the bottom.

Izpta: Kepa Sanz

A handwritten signature in blue ink, with the name 'Kepa Sanz' written in a cursive style and enclosed within a large, horizontal oval loop.